

Harrera beroa Herri Indigenen Arteko I. Truke Programako kideei

2007/11/13

Azaroaren 12an hasi zen HUHEZI fakultatean **Herri Indigenen Arteko I. Truke Programa**. **Bederatzi lagunek** hartzen dute parte programa horretan, ia denak Hego Ameriketakoak, eta harrera beroa jaso zuten HUHEZIKo ikasle-irakasle eta Garabide elkarteko kideen partetik.

Azaroaren 30a bitartean, Truke programako kideek agenda estua izango dute, Euskal Herriko hainbat esperientzia ezagutuko dituzte-eta: kooperatibak, euskara elkarteak, hedabideak, ikastolak...

Udazkeneko Trukea

Truke programa hau berezia da, izan ere, antolatzaileak **Heki** eta **Garabide** dira, lehena **Lanki** ikertegiaren ikerlerro bat, eta bigarrena elkarte bat helburua duena Euskal Herriaren esperientzia herri indigenekin konpartitzea. Gaia, bestalde, zehatza du programak, herri indigenekiko kultura eta garapen esperientziak trukatu nahi ditu-eta. Egin ere, udazkenean egingo da, eta ez udaberrian, orain arte bezala.

